

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu bat aurrera atera al izateko hainbat gauza hartu behar dira kontuan, bestela aukera gutxi egongo lirateke proiektuak arrakasta izan dezan. Ezinbestekoak diren baliabideen arte aurkitzen dira funtsezko baliabideak, hauek ahalbidetzen dute enpresa bateko balio-proposamenerako eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.



Enpresa batek izan behar dituen funtsezko baliabideen artean, besteak beste hauek daude baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Lehenik eta behin, baliabide fisikoei erreparatuz, hainbat beharrezko gauza eduki beharko genituzke, ala nola, taldekideak elkartu ahal izateko lokal edo gela bat, produktua diseinatu ahal izateko ordenagailu bat, nola ez, diseinurako aplikazio aurreratu bat eta baita muntatu ahal izateko materiala, hau da, bateria bat eta mugimendua elektrizitatea bilakatzeko bobina bat.



Beste baliabideetako bat, baliabide intelektualak dira. Proiektu hau burutzeko ez da nahikoa edozein pertsona jartzea lanean, arlo honetan jakituna den langile esperientziatu bat izan beharra dauka. Informatikan aditua izan beharko du, eta diseinurako aplikazioak egokitasunez erabiltzen jakin beharko du gure taldekidea izan dadin. Honez gain, giza baliabideak ere funtsezkoak dira, izan ere,

nahitaezkoa izango da gure produktua modu egokienean eta ahalik gehien saltzea, beraz beharrezkoa litzateke salmentan aditua den pertsona bat taldean edukitzea.

Azkenik, finantza baliabideak, hartu beharko dira kontuan, ezinbestekoa da proiektua burutu ahal izateko diru iturri bat edukitzea. Jakinik proiektu honek diru asko balioko lukeenez, hasteko prestamo bat eskatu beharko genuke, hori bai, ez genuke behar baina gehiago eskatuko, hasteko beharrezkoa den aina bakarrik eskatuko genuke, eta produktuarekin dirua irabazten hasitakoan generatutako diru hori inbertituko genuke.

